



Non bizi gara?

- 1. Justifikazioa**
- 2. Helburua**
- 3. Metodologia**
- 4. Jarduerak**
- 5. Ebaluazio irizpideak eta adierazleak**
- 6. Proiektuaren balorazioa**
- 7. Bibliografia**

1. Justifikazioa

Non bizi gara? proiektua 4 eta 5 urteko ikasleei zuzenduta dago. Iraupena hiru hilabetekoa izango da gutxi gorabehera. Gaia umeen interesetatik, beharretatik eta jakin-minetik sortu da. Eurak dira protagonistak eta eurak aukeratzen dute zer nahi duten jakin eta zer landu.

Umeek uneoro jakin behar dute zertan dabilzan, zertarako eta zergatik.

Proiektu honek gelako bizitza, mundua eta errealitatea ulertzera eta norbera eta besteak ulertzera bideratuta egon behar du; gure kasuan, herria da umeengandik oso hurbil dagoen errealitateetako bat.

2. Helburua

Gure helburua da proiektu esanguratsua, hurbila eta errealitateari lotua izatea. Hori dela eta, gure helburu nagusia **geure herria ezagutzea** da.

3. Metodologia

Gure metodologiak ikuspegi eraikitzailean du oinarri, hots, ikaslea bera da bere irakaskuntza-ikaskuntza prozesua eraikitzen duena.

Honela, proiektuetan oinarritzen gara eta gelan ez dugu ikaslibururik erabiltzen. Ikasleek eurek esaten digute zer ikasi nahi duten, eta irakaslearentzat horixe izango da abiapuntua, ondoren lan hori osatzea da gure eginkizuna (beti umeek aurrez zer dakiten kontuan harturik).

Oso garrantzitsua da besteen iritziak ezagutzea eta errespetatzea, arazoei aurre egiteko erantzunak bilatzea, argudiatzen ikastea, eta horrekin guztiarekin umeen arteko interakzioa sortzea.

Gure proiektua globala denez, arlo guztiak hartzen ditugu kontuan.

. **Hizkuntza arloan:** informazioa bilatu, irakurri, interpretatu, ulertu, besteei azaldu, idatzi (ahal duten neurrian)... Hizkuntza batean baino gehiagotan egon daiteke informazioa irakurri edo idatzi beharra (planoa aztertu). Arlo guztietako ekintzekin batera landuko da ahozko hizkuntza (elkarrizketa dialogikoak eta inklusibitatea).

. **Matematika arloan:** espazioaren antolaketa, orientazioa, erreferentziak, neurriak, zenbakiak, sailkapenak...

. **Plastika arloan:** era askotako materialak erabiliko ditugu, birziklatuak batez ere.

. **Ingurune arloan:** gure herriaren ezagutza, helbidea, etxearen kokapena, herriko tokirik esanguratsuenak...

. **Jarrerak:** guretzat garrantzi handia dute baloreek eta sentimenduek. Ikasleen ideia guztiak hartuko ditugu aintzat.

Umeek ezberdin erantzuten diete planteatutako galderei eta erronkei; nork bere ideia du mundua ulertzeko eta interpretatzeko, hipotesi desberdinak, aurreiritzi desberdinak.

Aniztasuna lortu nahi dugu, horregatik galdetzen diegu ikasleei zein gai landu nahi duten, eta haiek aukeratutako gaia lantzen dugu. Baldintzarik nagusiena izango da ikasle guztiak gustura egotea.

4. Jarduerak

Gure proiektuaren helburua lortzeko jarduerarik nagusiena *gure herriko maketa* egitea da.

Izatez, “*Non bizi gara*” izenburua, ume batzuen arteko elkarrizketatik sortu zen: “Ni Ilargi kalean bizi naiz” “Nire etxeko zenbakia 12a da” “Ni Zubizaharrean bizi naiz”... Elkarrizketatik galdera batzuk sortu ziren, eta umeen jakin-minarekin proiektuari hasiera eman genion, ondorengo ekintzekin:

1. Norberaren helbidea etxetik idatzita ekarri.
2. Norberaren etxetik eskolarako bidea egin.
3. Gure herriko oraingo planoak aztertu.
4. Antzinako planoak aztertu.
5. Herrian zehar argazkiak atera.
6. Non kokatuko dugu maketa? (inbentarioa)
7. Geure etxeak egin.
8. Geure etxeak maketan kokatu.
9. Zer falta da maketa osatzeko? Taldeka zer falta den aztertu.

4.1 Norberaren helbidea etxetik idatzita ekarri

Ume bakoitzak helbidea paperean idatzita ekarriko du etxetik. Horretarako familiak parte hartzea ezinbestekoa da.

Helbide guztiak arbelean itsatsita daudenean, ume bakoitzak berea irakurriko du, eta denon artean helbide horiek nola idatzi diren aztertuko dugu (kaleen izenak, atarien zenbakiak, solairuen ordena...). Irten diren datu guztiekin zerrenda bat osatuko dugu paper zuri batean.

4.2 Norberaren etxetik eskolarako bidea egin

Umeak elkarrekin berbaz hasten dira: ume bakoitzak besteei etxetik eskolara egiten duen bidea azalduko die, eta erreferentzia batzuk aipatuko ditu; adibidez, ni eskolara etortzeko elizaren aurretik pasatzen naiz... Elkarrizketa bukatu ondoren, umeek beren ibilbidearen marrazkia egingo dute.. Marrazki guztiekin horma-irudi bat osatuko dugu: *gure mapa* deituko da (**1. argazkia**).

4.3 Geure herriko gaur egungo planoaz aztertu

Umeak binaka jarrita, emandako planoan ezagutzen dituzten espazioak, eraikuntzak, kaleak, ibaia etab. markatuko dituzte, marraz eginez, margotuz, biribilduz, izenak idatziz edo geziak erabiliz. Egindako lan guztiak argiago ikusteko erretroproiektorea erabiliko dugu. Horrela aukera izango dugu guztien lanak aztertzeko, komentatzeko... **(2., 3. eta 4. argazkiak).**

4.4 Antzinako planoaz aztertu

Erretroproiektorea erabiliz, ume guztien artean gaur egungo eta antzinako planoen arteko desberdintasunak komentatu. Aldi berean zerrenda bat osatzen joango gara ume guztien komentarioekin. **(5. argazkia).**

4.5 Herrian zehar argazkiak ateratu

Gure herritik ibilaldira bat egingo dugu eta ume bakoitzaren etxearen argazkiak aterako ditugu, baita eraikuntza esanguratsuen argazkiak ere **(6. eta 7. argazkiak).**

4.6 Non kokatuko dugu maketa? (inbentarioa)

Leku egokia bilatu behar dugu maketa kokatzeko. Umeek eskolako hainbat leku aipatuko dute, eta ideia guztiekin zerrenda osatuko dugu. Ideia guztiak aztertu eta gero, guztien artean egokiena aukeratuko dugu. Leku horri etxe txokoa deituko diogu. Denon artean pentsatu behar dugu kendutako gauzak non kokatu maketarentzat lekua izateko; gainera, kendu diren gauzen inbentarioa egingo dugu, beraz, material guztia zerrendatuko dugu (telefono 2, 34 zapi, 12 plater...) **(8. argazkia).**

4.7 Geure etxeak egin

Maketa egiteko erabiliko dugun materialari buruz hitz egin eta gero, taldean erabakiko da birziklatzeko ontziak ekartzea (neurri, era eta forma askotako kutxa). Material guztia batuta eta aukeratuta dagoenean, ume bakoitza bere etxea egiten hasiko da, nahi duen eran. **(9. argazkia)**

4. 8 Geure etxeak maketan kokatu

Maketaren oinarrian (kartoizko kutxa handi bat zabalik) erreferentziazko herriko eraikuntza eta toki esanguratsuenak kokatuko ditugu denon artean (udaletxea, eliza, Arratia ibaia...). Hori egin ondoren, ume bakoitzak bere etxea dagokion lekuan jarriko du.

(10. eta 11. argazkiak)

4. 9 Zer falta da maketa osatzeko? Taldeen banaketa eta ardurak.

Maketa osatzeko falta diren osagarriez (farolak, jesarlekuak...) ohartu ondoren, talde txikietan falta diren gauzen zerrenda idatziko dute (talde bakoitzak paper eta arkatz bana).

(12. eta 13. argazkiak)

Ikasle guztien artean elkarrizketa bat sortzen da osatutako zerrendaren inguruan. Zerrenda guztiekin zerrenda berri bat osatuko dugu. Ondoren talde bakoitza falta diren gauzak egiten hasiko da.

(14. eta 15. argazkiak)

Amaitzeko, egindako guztia maketan kokatuko dute

(16. eta 17. argazkiak)

5. Ebaluazio irizpideak eta adierazleak

Gure ebaluazioa eraginkorra, globala eta etengabea izango da.

Hiru ebaluazio mota bereiz ditzakegu:

- **Hasierako ebaluazioa.** Irakaste-ikaste prozesua hasi aurretik aplikatzen da, ikaslearen abiapuntua finkatzeko. Ume bakoitza aurrera egiten ari den “mundu” bat da eta umeen garapena era berezian ematen da. Ez dute ume guztiek jasotzen ezagutza eta esperientzia multzo berbera, eskolara etorri aurretik. Hori dela eta, ebaluatzeke orduan hortik abiatu behar dugu: zein ezagutza duen umeak memento horretan.
- **Prozesuaren ebaluazioa.** Irakaste-ikaste prozesuan zehar garatzen da eta bere funtzioa prozesuari buruzko informazioa biltzea da.
- **Azken ebaluazioa.** Honen bidez prozesuaren azken emaitzak neurtu nahi ditugu. Asmoa ez da arazoak detektatzea, ezta garatzen ari den

prozesua zuzentzeko informazio bilketa egitea, baizik eta: *lortu ditu halako umeak prozesuaren hasieran jarritako helburuak?*

Erabiliko ditugun ebaluatzeko tresnak, besteak beste, hauexek izango dira: behaketa zuzena eta sistematikoa, ikasleek egiten dituzten lanen kontrola, elkarrizketak umeekin, froga espezifikoa, etxera eramateko txostena, buru-mapa...

Buru-mapa izango da ebaluatzeko tresnetako bat. Denon artean hasiko gara betetzen eta amaieran ikasleek "zer ikasi duten" jakiteko baliagarria izango da.

Jarduera bakoitzaren ikuspegi orokorra izateko, honako ebaluazio-adierazleok hartuko ditugu kontuan:

- Gaiarekiko interesa, gogoia... adierazi duten.
- Euren auzoa, kalea, etxe ingurua... nolakoa den ezagutzeko jakin-mina eta gogoia adierazten duten.
- Besteen etxea, auzoa, kalea, ingurua... nolakoa den ezagutzeko jakin-mina eta gogoia adierazten duten.
- Besteena entzuteko, konpartitzeko... jarrera duten.
- Herrian, auzoan... bere burua kokatzen dakiten: "non bizi naiz, nire etxea non dago, herriko erreferentziazko elementu edo eraikin inportanteekiko, edo nire lagunak etxeekiko..."
- Ikaskideen etxeak herrian, auzoan kokatzen dakiten.
- Bera eta lagunak non bizi diren ahoz nola adierazten duen.
- Helbidea nola adierazten den, eta elementu bakoitzaren (kalea edo auzoaren izena, zenbakia, pisua) esanahia ezagutzen eta erabiltzen duen.
- Planoak egiteko orduan:
 - o Planoaren esanahia eta zentzua ulertzen duen.
 - o Nolako planoak egiten dituen:
 - elementu inportanteenak agertzen dira?
 - nola adierazten ditu planoetako elementu horiek? (marrak, geziak...).

6. Proiektuaren balorazioa

Proiektua gauzatzeko, estrategia didaktiko berritzaileak erabili nahi izan ditugu. Gure ustez, protagonista haurra da, ez ikasliburua, ezta irakaslea ere. Gaiak aukera emango digu adin-tarte desberdinetan lantzeko, eta inguruarekin lotura duten edukiak sartzeko.

Proiektuen bidez lan eginda ikasleen autonomia landuko dugu; horixe da, hain zuzen ere, gure helbururik nagusia. Horrez gain, gaitasun

kognitiboak eta jokabideei dagozkien gaitasunak lantzeko aukera ere izango dugu.

7. Bibliografia

- Eskola txikien III. Topaketak, 2008. Liburuxka.
- Areatzako eskolako argazkiak.
- Areatza herriko oraingo eta antzinako planoak.
- Dekretua.

